

Matz-Errekak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoarekin lankidetzan agente-Koadroen mantentzea urrunetik egiteko sistema garatu du.

2009/09/18

Gaur egun, komunikazioak geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira, eta denborarekin garrantzia gehiago izango dute. Jada, inguruarekin komunikatzea ez da soilik gizakiena den ezaugarria. Konektatzeko gaitasuna, inguratzen gaituzten elementu askori eskatzen zaion ahalmena da. Gizarte modernoan hainbat adibide aurki ditzakegu, adierazgarrienak honako hauek dira: eskuko telefonoa, telebista, esku libreko sistemak... eta horiez gain, vending makinek, igogailuek, garbigailuek, labeek eta abarrek konektatzeko ahalmen hori erabiltzen dute.

Mondragon Unibertsitateak Matz-Errekarekin lankidetzan aplikazio berri bat garatu du enpresa honek egiten dituen automatismoei konektatzeko ahalmena eta adimena emateko.

Horretarako, GSM/GPRS teknologia erabili da. Teknologia hau dagoeneko ezaguna da eta erabiltzaileak ohituta daude honetara batez ere eskuko telefonoen erabilpenaren ondorioz. Teknologia honen bidez, urruneko mantentzetan hornitu dira agente-koadroak (ate automatikoak itxi eta zabaltzea agintzen duten sistema elektrikoak) baita ateak urrutitik zabaltzeko aukera ere. Horrela, urrutiko kontrol arruntak osatu egiten dira.

Agente-Koadroei gehitu zaien funtzionaltasuna bitan bana daiteke:

Alde batetik, mantentzea urrunetik egiteko funtzioak gehitu dira datu kanalak erabiliz. Sistema honen bidez, koadroen aldagaiak kontsultatu daitezke fisikoki koadrorara joan gabe bere egoera ezagutzeko. Irakurtzeaz gain, koadroaren baloreak aldatzea ahalbidetzen du funtzionatzeko era berrietara egokitzeko. Sistemari irakurri eta idazteko modua anitza da. Automatismoen arduraduna bidaian denean, internetera sartzeko aukerarik gabe, komunikazioa SMS mezuen bidez egiten da. Aldiz, langileak internetera sartzeko aukera badu, komunikazioa sarea erabiliz egiten da, elkarrizketa orrien bidez.

Koadroak nahikoa adimen du bere egoera jakiteko eta alarma mezuak bidaltzeko mantentze-lanetan arduratzen diren langileei, SMS mezuak erabiliz. Modu honetan, matxuraren bat gertatzen denean, langileari momentuan jakinarazten zaio zer gertatu zaion ateari. Funtzionaltasun berri honi esker inspektzioko aurrebisitak ez dira beharrezkoak, eta langilea behar dituen tresnekin abiatu daiteke matxura konpontzera.

Bigarren funtzionaltasuna, atea urruneko kontrolaz eragitea da, edozein telefono finko edo eskuko telefono, urrutiko kontrol bihurtzen da eta estaldura dagoen edozein puntutik atea zabaltzea ahalbidetzen du. Sistema hau beste erabilpen askoz gain, aterainoko distantzia esanguratsua denean erabiltzeko da, baita inhibitzaileak dauden tokietan eta urruneko kontrolak banatzea bidera ezina denean hotel edo esparru publikoetan esate baterako.

Sistema honek beharrezko segurtasun neurriak ditu identitate ordezkatzetik gertatu ez dadin. Administrazioaile eta erabiltzaile taldeak erabiliz, perfil bakoitzak sarbidea duen funtzioak bakarrik egitea ahalbidetzen du, koadroaren erabilpena pertsona baimenduei mugatuz eta nahi ez diren konexioak baztertuz.

Gainera, datuak eta ahotsa bidaltzeko GSM/GPRS teknologiak komunikazioak izango duen segurtasuna zaintzen du.

